

## **EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA, USTELKERIAREN AURKAKO TRESNA INSTITUZIONAL INDEPENDIENTEAK SORTU ETA MARTXAN JARTZEARI BURUZKOA**

2018ko irailean, Euskal Autonomi Erkidegoko Legebiltzarrean *Praktika onen eta ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzeko lege proposamena* erregistratu zuen EH Bilduk.

Eusko Jaurlaritzak 2018ko urriaren 23ko Gobernu Kontseiluan berau izapidetzearen aldeko txostena eman bazuen ere, hiru foru aldundiek –hiruak EAJk gobernatuak– Arbitraia Batzordearen aurrean errekurtsioa aurkeztu zuten prozedura oztopatu asmoz. Batzorde horrek 2019ko martxoan errekurtsio horiek aztertzea erabaki zuen.

2019ko ekainean, Arbitraia Batzordeak errekurtsioak ebatzi zituen eta lege proposamena Eusko Legebiltzarreko Institutio, Segurtasun eta Gobernantza Publikoko Batzordera igorri zuen, bertan, lege proposamenaren tramitazioari bide eman ziezaioten. Orduz gero, lege proposamena blokeatuta dago EAJ buru den legebiltzarreko batzorde horretan, eta ez da tramitaziorako inolako pausorik eman.

Bitartean, gure inguruan azken aldian ebatzi diren epaien larritasunak gizartean kezka handia sortu du. Ezin uka dezakegu, adibidez, De Miguel kasuan, Arabako Probintzi Auzitegiaren 2019ko abenduaren 17ko sententziak frogatuzat jotako ekintzak eta ezarritako zigorrak larriak direla. Baina hori ez da izan ustelkeria kasu bakarra, hor daude, besteak beste, Karrantzako Minda, Alonsotegi, Bakio... Era berean, larria da EAEko instituzio nagusiek ustelkeriaren eta praktika okerren aurka arituko diren tresna instituzional independente eta eraginkorrak sortzeko erakusten duen borondaterik eza.

Honegatik, EH Bilduko udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du Lasarte-Oriako Udaleko Plenoak eztatidatu eta onartu dezan:

1- Lasarte-Oriako Udaleko Plenoak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio, *Praktika onen eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren sorrerarako Lege Proposamena*-ren tramitazioa ahalik eta epe laburrenean bidera dezala, XI. legegintzaldia amaitu orduko onartu dadin.

2.- Lasarte-Oriako Udaleko Plenoak eskatzen du EAEko Ustelkeriaren aurkako Fiskaltza sor dadila, eta Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailari eskatzen dio Delitu Ekonomikoen aurkako Fiskaltza hori beharrezko bitarteko material eta giza bitartekoez hornitu dezala, horrek eraginkortasunez ustelkeria kasuak iker ditzan, funtzioak hobeto egikaritu ditzan eta diru publikoaren bidegabeko eta legez kanpoko erabileraren kontra borroka dezan.

3.- Lasarte-Oriako Udaleko Plenoak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2019ko otsailaren 28an Eusko Legebiltzarrean onartu bezala, Ertzaintzan ustelkeriaren kontrako unitate berezitu bat sor dezala, Ertzaintzak ustelkeria delituetarako dituen bitarteko material eta giza bitartekoak areagotu ditzala eta delitu horiek ikertzera agente gehiago bidera ditzala, beharrezko formazioa eta prestakuntza eskainiaz.

4.- Mozio hau Eusko Jaurlaritzara, Eusko Legebiltzarrera eta Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Segurtasun Sailetara igorriko da.

